

## Presoak eta euroak agenda politikoaren tontorrean

**BILBON** iragan larunbatean egin-dakoa Euskal Herrian egin den manifestaziorik handiena izan ote den batek daki, baina bai handienetakoa. Hori ez da erabakigarria, baina beti izango da adierazgarria. Espero bezala gertatu da alde horretatik, ez ditu euskal presoak etzirako Euskal Herriratuko, baina euskal agenda politikoan gaiak duen lehen mailako garrantzia agerian jartzen du indarrez.

“Amnistiarik gabe, bakerik ez” izan da presoan aldeko mobilizazioetan hamarkadetan jaurti den oihuetakoa. Urruti gaude lelo horrek amnistia ulertzen duen egoeratik, baina bakea apurka egiten ari da euskal gizartean, batez ere ETAk urrian bere jardun armatuaren amaiera iragarri zuenetik. Baina itsuenak ere argi ikusten du presoak etxeratu gabe, normalizazio politikorik ez dela izango.

Prozesu luze eta korapilatsua izango dela ez du inork zalantzan jartzen, ETako presoek eurek eragindako biktimei buruz hitz egin beharko dutela ere ez, beren jardunak sortutako minaz, beren jardueraren armatuaren balorazioaz, barkamenaz, memoriaz... Gatazkaren lortzak utzitako gai bero horiez guztiez jardun beharko da, bakoitza bere posiziotik, posizio ahalik eta bateratuena lortuz elkarbizitza berri bati ekiteko, baina hori guztia bere testuinguru logikoenean egitea litzateke eraginkorrena: bake prozesu batean. Eta hori da azken finean egin beharko dena, izen horrekin edo ez, hori delako ETaren amaiera ordenatuari bide emateko modurik eraginkor eta eraikitzaileena.

**MARIANO RAJOY-K**, bitartean, bere eskolean jarraitzen du. Zergekin egin duena izan da salbuespen eta ezusteko bakarra, eta eredu



gisa baino gobernu ardurak dituzten ezkerreko indarren konplexu eta beldurrak uxatzeko balio beharko luke. Gainerako denak atzeraldi ekonomikoa sustatuko du. Japoniak azken hamarkadan bezala jokatu nahi du, baina harena laukoizten duen langabezi tasarekin. Eta hori ezinezkoa da.

Bi tresna nagusi erabiliko ditu Rajoyk krisitik ateratzeko: bata, aurrekontuen mozketak handia; bestea lan merkatuaren erreforma berrietan sakontzea, funtsean langileen eskubideak murriztuz eta hauen kontratazioak eta soldatak ahulduz, horrek ekonomia hazkundera bultzatuko duelakoan. Eta prozesu hori egin ahala, gainera, merkatuek konfiantza berreskuratuko lukete Espainian eta bankuek mailegua malgutuko lukete.

Kolore guztietako ekonomialariek, ordea, iragarria dute neurrien porrota. 2007ko AEBen *subprimeen* krisia hasi zenetik hura V formako krisia zela uste izan zuten ekonomialariek, erori baina gero maila berera igoko zela. Behin krisia mundu osora zabalduta ondoren,

2010eko atzeraldiak erakutsi zuen krisia W formakoa izan zitekeela, bi erorketa eta bi igoerakoa. Baina 2011k erakutsi du seguruenik L formakoa izango dela, erori eta hainbat urtetan behean jarraituko duela, eta gero eta aditu gehiago bat dator aurreikuspen honekin.

2011ko hondarrean jakinarazi zuen Joaquin Almunia EBk 2008-2010 artean 1,6 bilioi euro jarri zituela finantza sistema suspertzeko. Abenduaren bukaeran, halaber, Europako Banku Zentralak ia 500.000 milioi euroko mailegua eman zien 523 bankuri, hiru urtera itzultzeko eta %1eko interesarekin. Eta otsailaren bukaeran beste mailegu eskaintza handia espero da EBZren aldetik.

Orain ikus dezagun bankuek %1eko interesean lortutako dirutza hori nola erabili ahal izango duten. Bankuen arteko maileguak %4,7ko interes tasa du une honetan; Santander bankuak herritarrei mailegu hipotekario bat 30 urtera %3,37an eskainiko dio; pertsona arruntei ematen zaizkien maileguak %10-11n daude Espainian. BBVAk iazko azaroan Espainiaren zor publikoan inbertitu izan balu (%7ko interesean jaulki zen 10 urterako zorra) %6ko errentagarritasuna izango zuen. Eta Espainiako zor publikoan abendu bukaeran 18 hilabetera inbertituz gero %4,22 interesean egingo luke. Hau da, bankuei %3,4, 5... puntuko tartea oparitzen diela EBZk. Hori produktu sinpleenak kontuan hartuta eta deribatu eta gisakoetan sartu gabe.

Guztia ondo irakurria da, ez hazkunde ekonomikoa, ez langabezia eta are gutxiago herritarren ongizatea, Europako Bata-sunean oraindik ere garrantzitsuen finantza sistema sendatzea eta sendotzea da.

